ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2023ko martxoaren 17a, ostirala • 32 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LANTARONGO UDALA

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zergaren 2023ko errolda jendaurrean jartzea eta ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea**

Behin osaturik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zergaren 2023ko errolda, 2023ko martxoaren 8ko osoko bilkuran onetsia izan da.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita, eragindako zergadunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

Interesdunek Lantarongo Udalaren bulegoetan (Ayuntamiento kalea, 2. Komunioi) aztertu ahal izango dituzte agiriak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Zerga erroldak jendaurrean jartzean, haiek osatzen dituzten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da.

Jendaurreko epe hori igaro eta erreklamaziorik egin ez bada, errolda behin betiko onartutzat joko da, eta ordainagiriak kobratzeko moduan jarriko dira, borondatezko epean, 2023ko apirilaren 17tik ekainaren 20ra, biak barne, astelehenetik ostiralera, bulego orduetan. Erreklamaziorik aurkezten bada, udalak ebatziko ditu horiek.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2023ko ekainaren 16an kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dute borondatezko epean.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei jakinarazten zaie ezen, ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Lantarongo Udalean izapidetuko direla.

Epe hori igarota, 2023ko ekainaren 21etik aurrera betearazte aldia hasiko da eta errekarguak (gehienez, ehuneko 20), premiamendu murriztukoak eta premiamendu arruntekoak ordainduko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2023ko martxoaren 8a

*Alkatea*
*JAVIER URIARTE JAIRO*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2023.03.17 06:27:05 Z